



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko urtarrilaren 27a

6. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zer kontusailetan sartu diren Nafarroako IV. Enplegu Planean aurreikusitako zenbatekoak. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak eginiko gomendioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak kontratatutako publizitate instituzionaleko kanpainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, administrazioaren jardunbide egokiaren kodeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, NAPIren toki administrazioaren gaineko ikastaroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Lizarrako Santo Domingo eta San Jerónimo egoitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Mendekotasun Agentziak egoitza publikoei eta itunpekoiei aplikatzen dizkien tarifei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, euskara sustatzeagatik Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso duten Nafarroako entitateei eta elkarteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskolari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Zangozako zubi berriaren obrak hasteko eta bukatzeko aurreikusi diren datai buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, ingurumen arloko arriskuei dagokienez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusi dituen ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Leringo Udalak 173 zuhaitz moztu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Espetxeetako Lan eta Prestazioen Erakunde Autonomoarekin Iruñeko espetxeko hezkuntzari buruz sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren jarraipena egiteko batzorde mistoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Reina Sofia museoak antolatutako “Encuentros del 72” izeneko erakusketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

- Galdera, Esako gaizkata-haztegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Zentro Pilotuen Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, “Kutsadurari aurea hartzea eta zuzentzea” izeneko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, zebra muskuiluen izurriari aurre egiteko hitzarmenik sinatu ez izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zer kontusailetan sartu diren Nafarroako IV. Enplegu Planean aurreikusitako zenbatekoak.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du jakiteko zer kontusailetan sartu diren Nafarroako IV. Enplegu Planean aurreikusitako zenbatekoak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 9ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapenari buruz eta Nafarroako IV. Enplegu Planari buruz (PES-276/09). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna.

2008ko datuak eranstean dizkizut. Haietan, izan ere, Enplegu Planeko ekintza guztiak ageri dira, bai eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiaren kontusailen xehetasunak ere. Gainerako ekintzetarako, ez dago daturik esateko zein kontusailei dagozkien.

Halaber, 2009ko datuak ere erantsi ditugu. Haietan, Enplegu Planeko ekintzak ageri dira. Halaber, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiaren kontusailak ezagutuko ditugu, bai eta Etorkinak Artatzeko Bulegoaren kontusailen bat eta Gizarte Gaietako beste kontusailen bat ere. Ez dago datu gehiago Enplegu Planean sar litezkeen bestelako kontusailei buruz.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak eginiko gomendioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak eginiko gomendioei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteari atxikitako parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak eginiko gomendioei buruz (PES-279/09). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun kontseilariaren martxoaren 31ko 30/2008 Foru Aginduaz Nafarroako Foru Komunitateko Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldea sortu zen.

Nafarroako Foru Komunitateko Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak, 2009ko maiatzaren 30ean, eskatutako lanak amaitu eta zenbait gomendio eman dizkio Osasun Zuzendaritza Nagusiar:

Osasun kontseilariaren ekainaren 23ko 85/2009 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldea desegin zen, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileari eta Osasun zuzendari nagusiar esleitu zitzairen behar diren neurriak hartzea txostenean jasotako gomendioak abian jartzeko, behin foru agindu hori 2009ko abuztuaren 7ko 97. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman ondoren.

Aurkeztutako mozio baten bitartez Nafarroako Gobernua honako urratsak egitera premiatu zen: 1) "Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzuen zorroan sar dezan oinetan arazoak izateko arriskua duten pertsonen arreta" eta 2) "2010ean abian jar dezan foru erkidegoan gaixotasun baskularrak dituzten pertsonen eta diabetesa duten pertsonen arreta hartzen duen arreta podologikoari buruzko sistema, Nafarroako Foru Komunitateko Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak eginiko azterlanean gomendatzen den moduan". Horren aurrean, Osasun Departamentuak honako gogoeta hau egiten du:

– Oinetan arazoak izateko arriskua duten pertsonen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarriko Osasun Laguntzako eta Laguntza Espezializatuko (kirurgia baskularra, kirurgia plastikoa, kirurgia orokorra, dermatologia eta abar) profesionalak ematen diete arreta, dauzkaten banakako premien arabera.

– Gaixotasun baskularrak dituzten pertsonen eta diabetesa duten pertsonen arreta podologikoa, berriz, jada espezialitate desberdinetako osasun profesionalak ematen ari dira, kalitate bikainarekin eman ere.

– Ez dirudi beharrezkoa denik Nafarroako Osasun Sistema Publikoko zerbitzuen zorroa handitzea, gaixotasun baskularrak dituzten gaixok eta gaixo diabetikoak sartzeko, zeren eta arreta hori jada kalitate handiarekin ematen ari baita.

– Azkenik, esan behar dugu ezin dugula ahaztu, ezta ere, egungo abagune ekonomikoa, eta, horrenbestez, oso zorrotzak izan behar dugula osasun zerbitzuen zorroa handitzearekin, batez ere gure gaixoentzako arretan aldaketa kualitatiborik lortzen ez denean.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Nafarroako Gobernuak kontratatutako publizitate instituzionalen kanpainei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak kontratatutako publizitate instituzionalen kanpainei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 2ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du publizitate instituzionalari buruz eta, bereziki, Nafarroa 2012 Planarekin lotutakoari buruz. Hona Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari eta Gobernuko eledunaren erantzuna:

Honakoak izan ziren Nafarroako Gobernuak 2008an kontratatutako publizitate kanpainak. Haien zerrenda herritar guztien eskura dago "Navarra.es" webgunean:

<u>Kanpaina</u>	<u>Aurrekontuko zenbatekoa</u>	<u>Betetako zenbatekoa</u>
Turismoko kanpaina	3.011.702,7	2.936.176
Nafarroa 2012 Plana eta Krisiaren aurkako Plana	300.263,63	219.187,67
Errenta	210.620,00	209.954
Nafarroako Nazioarteko Plana	174.104,24	174.104,24
Bizi Ohitura Osasungarriak	180.962,19	180.962,19
Gizarte Zerbitzuen Zorroa	165.381,47	165.381,47
Sentsibilizazioa immigrazioa dela eta	149.907,84	149.907,84
San Martin Doktorea larrialdietako zentroaren irekitzea	130.904	130.904
Nafarroako Eguna	125.000,00	122.118,68
Lanbide heziketarako izena ematea	109.000,00	108.275,50
Erriberriko Antzerki Klasikoa	73.058,01	73.058,01
Bide Segurtasuna	74.185,97	74.185,97
Lurreko telebista digitalaren iritsiera	66.744,25	66.744,00
Gazteriaren Institutuaren parte hartzeari buruzko kanpaina	55.053,99	55.053,99
Etxetresna elektrikoak berritzeko plana	48.950	48.430,58
Konstituzioaren urteurrena	48.107,83	47.987
XX. mendeko 20 margolariren erakusketa	75.226,32	43.270,62
Energia aurrezteko laguntzak	34.999,09	34.999,09
Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak zabaltzeko programa	33.114,24	33.114,24
Nafarroaren ekitaldiak Zaragozako Exporako	20.380,11	20.380,11
Ikastetxe publikoetan izena ematea	19.771,43	19.771,43
Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdia	16.215,00	16.167,13
Baterako garapenari buruzko jardunaldietako iragarkia	15.286,84	15.286,84

2009. urteari dagokionez, azaroaren 20an, honakoa da kanpainen zerrenda:

<u>Kanpaina</u>	<u>Aurrekontuko zenbatekoa</u>	<u>Betetako zenbatekoa</u>
Turismoko kanpaina	2.857.915,60	2.001.434,70
Krisiaren aurkako neurriak	341.277,14	226.403,89
Telebista digitalaren iritsiera	196.826,30	175.275,39
Errentaren kanpaina	174.364,10	173.683,29
Lanbide heziketarako izena ematea	82.762,89	82.867,29
Erriberriko Antzerki Klasikoko Jaialdia	69.323,22	68.626,14
Gazteriaren Institutuaren egoitza berriari buruzko kanpaina	49.446,39	48.872,94
Punto de Vista Zinema Dokumentaleko Jaialdia	19.140,29	19.096,07
Ikastetxe publikoak. 2009-2010 ikasturtea	18.975,66	18.975,66
Etxetresna elektrikoak berritzeko plana	26.154,66	12.325,66
Artista Gazteen Topaketak	18.790,42	3.836,46

Nafarroa 2012 Plana ezagutzera emateko kanpainei dagokienez, Nafarroako Gobernuak 2008an publizitate instituzionaleko kanpaina bat kontratatu zuen, 300.000 erotan, BEZa barne, azpiegituretarako eta inbertsioetarako "Nafarroa 2012" Plana zabaltzeko. Plan hori, izan ere, Foru Administrazioak sustatzen du ekonomia berpizteko eta krisi ekonomikoak enpleguaren gainean dauzkan eragin negatiboak arintzeko.

Kontratazio horren ondoren, eta lanetatik zati bat exekutatuta zegoenean, 137.386,03 euro, BEZa barne, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Gobernuaren ekimenez, krisiari aurre egiteko neurrien bigarren multzo bat onetsi zuen; horien barnean, herritarrentzako, ekintzaileentzako, autonomoentzako eta enpresentzako zuzeneko laguntzak sartzen ziren.

Neurri horien garrantzia eta gizartean duten eragina kontuan izanda, Nafarroako Gobernuak komenigarritzat jo zuen haiek gehitzea Navarra 2012 Planaren gaineko informazioari, Nafarroako Gobernuak data horretara arte sustatutako ekintza guztiak batera zabaltzeko.

Horrela, "2012 Planari" buruzko kanpaina aldatu zen, eta haren diseinua "Krisiaren aurkako Plana" izen zabalagoari egokitu zitzaion. Bigarren atal horretako publizitate ekintzek 81.801,64 euro egin zuten. Horrekin guztiarekin, 2008ko guztizko inbertsioak, bi kanpainetakoak (2012 Plana-Krisiaren aurkako Plana) 219.187,67 euro egin zuen.

2008an egin eta jada aipatu ditugun Krisiaren aurkako Planeko zabalkunde ekintzez gainera, Nafarroako Gobernuak, 2009an, kanpaina bat kontratatu du Krisiaren aurkako Planean jasotako neurriak eta laguntzak ezagutzera emateko. Guztira, 341.277,14 euro egiten dute eta haietatik 226.403,89 euro exekutatu dira.

Erantsita bidaltzen dizuet sozietate publikoei buruzko publizitate kanpainen gaineko informazioa.

Hori guztia da jakinarazteko dudana.

Iruñean, 2009ko urrian

Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

Txostena

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak irailaren 22an eginiko galderari dagokionez (7-09/PES-00261), honakoa jakinarazi behar dizut:

Ondare Zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako sozietate publiko guztiei informazioa eskatu die. Informazio hori txosten honen eranskin gisa jaso dugu:

Eranskineko zerrendan agertzen ez diren sozietate publikoek ez dute egin, adierazten dutenaren arabera, inongo publizitate instituzionaleko kanpainarik, eta beren funtzionamendu arrunterako behar izan duten publizitatea baizik ez dute egin (langileen hautapena, aginduzko iragarkiak eta abar).

Iruñean, 2009ko urriaren 29an.

Ondare Zerbitzuko zuzendaria: Javier Martínez Eslava

ERANSKINA**NAFARROAKO ENPRESA ETA BERRIKUNTZA-RAKO EUROPAKO ZENTROA, S.A. (CEIN)**

– CEINek egindako publizitate kanpainen lotura zuzena dute entitateak ematen dituen zerbitzuekin: izpiritu ekintzailea sustatzea, enpresak sortzeko laguntza, jada sortutako enpresen garapena eta finkatzea eta Nafarroako enpresetan berrikuntza sustatzea.

Honakoak izan dira 2008an eta 2009an eginiko kanpainak:

Zerbitzua	Publizitate kanpaina	Helburua	Kanpainarako hautatu den hedabidea	Kostua
Erantzun digitala	Informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako laguntzen kanpaina. 2008ko ekaina.	Informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako diru-laguntzak sustatzeko kanpaina	Egunkariak, irratia eta esku-orriak	31.148,29 €
CEINen enpresen mintegia	CEINen Enpresa Berritzaileen Mintegian sar daitezkeen enpresak erakartzeko kanpaina.	CEINen Enpresen Mintegian sar daitezkeen enpresak erakartzea.	Iratia	9.589,86 €

Hala eta guztiz ere, CEINen beste jarduerak batzuk direla eta, kasuko ekintzari buruzko berriazko iragarkiak jarri behar izan dira egunkarietan edo irratan. Honakoak, hain zuzen:

CEINen jarduerak, publizitate ekintzak eskatu dituztenak:

2008. urtea

Proiektua edo zerbitzua	Egindako publizitatea	Helburua	Kanpainarako hautatu den hedabidea	Kostua
Erantzun digitala	CEINen softwareko bikintasun zentroetan programatutako ikastaro, jardunaldi eta zerbitzuak	Programatutako ekintzetarako parte-hartzaileak erakartzea.	Prentsa	25.813,50 €
Erantzun digitala	"Informatiza ezazu zure enpresa" programa zabaltzea.	Programatutako ekintzetarako parte-hartzaileak erakartzea.	Prentsa	16.376,50 €
Erantzun digitala	Webactiva lehiaketa	Webactiva sarien 10. ekitaldiaren sustapena	Prentsa	5.048,00 €
Entrenamendu zentroa	Entrenamendu zentrotako ikastaro monografikoen, mintegi praktikoen eta prestakuntza ibilbideen zabalkundea.	Negozio-ideiak dituzten ekintzaile guztiei iritsaraztea CEINen Entrenamendu Zentroan garatutako prestakuntza jarduerak.	Prentsa	11.579,00 €
Ekintzailearen eguna	2008ko Ekintzailearen Egunaren berri zabaltzea Nafarroan	Ekintzailearen Eguna sustatzea, Nafarroako balizko ekintzaile guztiengana iristeko.	Kalean eta irratan street marketina egitea.	17.415,00 €
CEINen enpresen mintegia	Enpresa Berritzaileen Klubeko prestakuntza ekintzak zabaltzea	CEINen Prestakuntza ikastaroetarako eta Enpresen Klubetarako enpresak erakartzea.	Prentsa	2.760,00 €
CEIN, S.A.	CEINek emandako zerbitzuen berri zabaltzea.	CEINek ekintzaileei eta enpresei laguntzeko ematen dituen zerbitzuak ezagutzera ematea.	Prentsa	6.946,00 €

2009. urtea

Proiektua edo zerbitzua	Egindako publizitatea	Helburua	Kanpainarako hautatu den hedabidea	Kostua
CEIN, S.A.	CEINek emandako zerbitzuen berri zabaltzea.	CEINek ekintzaileei eta enpresei laguntzeko ematen dituen zerbitzuak ezagutzera ematea.	Prensa	3.694,25 €
CEIN, S.A., START UP y Fondo Joven	CEINen dauden finantzaketa-tresnen berri zabaltzea.	CEINen dauden finantzaketa-tresnak ezagutzera ematea: FCL, START UP eta Fondo Joven	Prensa	1.838,50 €
CEINen enpresen mintegia	Enpresa Berritzaileen Klubeko prestakuntza ekintzak zabaltzea	CEINen Prestakuntza ikastaroetarako eta Enpresen Kluberako enpresak erakartzea.	Prensa	1.860,00 €
Ekintzailearen eguna	2009ko Ekintzailearen Egunaren berri zabaltzea Nafarroan	Ekintzailearen Eguna sustatzea, Nafarroako balizko ekintzaile guztiengana iristeko.	Prensa eta irrata	9.945,00 €
Erantzun digitala	CEINen softwareko bikaintasun zentroetan programatutako ikastaro, jardunaldi eta zerbitzuak	Programatutako ekintzetarako parte-hartzaileak erakartzea.	Prensa	6.477,86 €
Erantzun digitala	Konputazioaren Asteko jarduerak zabaltzea	Konputazioaren Nazioarteko Astearen eginiko jarduerak zabaltzea.	Prensa	2.340,00 €
Entrenamendu zentroa	Entrenamendu Zentroko prestakuntza-ibilbidean eginiko prestakuntza zabaltzea.	Negozio-ideiaren bat duten ekintzaileei Entrena Zentroaren prestakuntza jarduerak iritsaraztea.	Prensa	1.008,00 €

FONDO JÓVENES EMPRESARIOS, S.A.U.

Aipatu urteetan, Fondo Jovenek ez du inongo publizitate kanpainarik egin. 2008ko publizitate gastua 1.313,70 eurokoa izan da; 2009koka, berriz, 279,56 eurokoa. Entitateak ematen dituen zerbitzuekin zerikusia duten iragarkiak argitaratzeari dagozkie.

NAVARRA DE FINANCIACION Y CONTROL, S.A.

Nafarroako Gobernuak ez du Krisiaren aurkako Planari buruzko inongo publizitate kanpainarik

kontratatu Nafincoren bitartez aipatutako urteetan. Abalen Programa azaltzeko esku-orri batzuk baizik ez dira inprimatu, honako finantza-entitateen laguntzarekin: Nafarroako Kutxa, Nafarroako Rural Kutxa, Euskadiko Kutxa eta Banco Popular. Kostua entitate horiekin erdibana ordaindu da.

NAVARRA DE SUELO INDUSTRIAL, S.A.

Nasuinsa Sozietate Publikoak publizitatearen arloan kontratatu eta exekutatu dituen zenbateko bakarrak, 2008. eta 2009. urteetako ekitaldietako kontuetan kontabilizatutakoak, honakoak dira:

2008	2 iragarki Navarra de Negocios aldizkarian, honako zenbatekoarekin:	1.035 €
2009	Iragarki bat Navarra de Negocios aldizkarian, honako zenbatekoarekin: – Nafarroa 2012 Planari buruzko kartel bat, Cortesko Industrialdeko urbanizazio lanetan. “Zunzarren” enpresak egin zuen, eta honako zenbatekoa egiten zuen:	1.150 € 4.100 €

INSTITUTO DE CALIDAD AGROALIMENTA-
RIA DE NAVARRA (ICAN)

Honakoak dira hedabideetan Reyno Gourmet
kanpainak direla-eta egin diren gastuak:

	2008	30/09/2009
Tokiko Hedabideetako Plana	156.254,89 €	57.654,30 €
Hedabide Nazionaletako Plana	458.585,59 €	150.240,00 €

Galdera, administrazioaren jardunbide egokiaren kodeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Administrazioaren jardunbide egokiaren kodeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Administrazioaren jardunbide egokiaren kodeari buruz (PES-284/09 zenbakiko galdera). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Kodea Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak (NAPI) prestatu zuen, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren uztailaren 15eko 46/2004 Foru Agindu bidez onetsi zen, eta aurreikuspena zen onespenez unetik bi urte igarotakoan berrikusi egingen zela.

NAPIk egoki iritzi dio kodearen berrikuspena 2009. urteko plangintzaren barruan sartzeari. Izan ere, onetsi zenetik pasa den denborak eta hala legedian nola Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren egituraren izandako aldaketek komenigarri egin dute zeregin honi orain heltzea, eta ez lehenago.

2.- Horrela, 2009an zehar, kodea berrikusi eta gaurkotzeko lanen barrenean, Europako, Estatuko, autonomia erkidegoetako eta Nafarroako erakundeek ekimenen testuingurua aztertu da gai honi dagokionez. Kodea berrikusteko lana jadanik amaituta dago.

3.- Azaro honetarako deituta dago Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordearen bilera, eta haren esku utziko da kodea berrikusi eta eguneratzea, deialdi horren testuaren arabera. Jarraian, kodea foru agindu bidez onetsiko da, eta ondoren, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Gobernuaren web atarian argitaratuko da.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, NAPIren toki administrazioaren gaineko ikastaroari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du NAPIren toki administrazioaren gaineko ikastaroari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du toki administrazioari buruzko ikastaro orokor bati buruz (PES-285/09 zenbakiko galdera). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- “Estanislao Aranzadi” Praktika Juridikoko Eskola da prestakuntza-, hezkuntza- eta integraltasun-xedea duen fundazio bat, Iruñeko Abokatu-en Elkargoak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Nafarroako Gobernuak osatua. Fundazioa araupetzen dute bere estatutuek, eta haiek aurreikusten ez duten orotan, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarren Konpilazioko 44. Legeak, Fundazioen eta babes ihardueren tributu araubidea erregulatzeko duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeak, eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

“Estanislao Aranzadi” Praktika Juridikoko Eskolak bere helburuen artean dauka zuzenbidean lizentziatu direnen prestakuntza praktikorako eta espezializazio profesionalerako zentro gisa bere burua finantzatzea, mantentzea eta ezagutaraztea, lizentziatu horiek zuzenbidearen eta justiziarren alorreko lanbideei berez dagozkien teknikan eta jokabideetan prestakuntza eraginkorra izan dezaten lortzea, eta etengabeko prestakuntza sustatzea abokatuentzat eta zuzenbideko gainerako profesionalentzat, horretarako mintegiak, jardunaldi monografikoak eta espezializazio-ikastaroak antolatuz, liburu juridikoak argitaratuz eta kultura-

ren nahiz prestakuntzaren alorreko bestelako edozein jarduerara aurrera eramanez.

Eskolak adierazitakoaren arabera, antolatzen dituen ikastaro ezberdinen ebaluazioa egin ondoren, toki-entitateen alorrean prestakuntzaren premia eta eskaera dagoela nabaritu zuen.

Praktika Juridikoko Eskolak egokitzen jo zuen, 2009ko bigarren hiruhilekoan irakatsi beharreko ikastaroen programazioan, eskaera horri erantzuteko ikastaro bat antolatzea, “Toki Administrazioari buruzko Ikastaro Orokorra” deitu zuena. Hala adierazi zion, une hartan, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuari, zeinak lankidetzan jarduten baitu Praktika Juridikoko “Estanislao Aranzadi” Eskola Fundazioaren patronatuan, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta Iruñeko Abokatu-en Elkargoarekin batera.

Horrela, ba, NAPIri laguntza eskatu zitzaion, Nafarroako administrazio publikoetako langileen artean ikastaroa ezagutarazteko, bai eta geroago-ko kreditazio-zereginetarako ere.

2.- “Estanislao Aranzadi” Praktika Juridikoko Eskolak bere gain hartzen du ikastaroaren antolaketa, eta NAPI, bestalde, mugatzen da zabalkunde-ari eta ikastaroaren bertaratze-kreditazioari dagozkien jardueretara.

Ikastaroa ez zaio atxiki NAPIren inolako aurrekontu-kontusaili. Beraz, erakunde autonomo horrek ez du bere gain hartu ikastaroaren antolaketari dagokion inolako kosturik. Antolaketa teknikoak (ikasleak eta hizlariak hautatzea, azken horiei ordaintzea eta abar) Praktika Juridikoko Eskolaren ardura da, zeinak halaber bere gain hartzen baitu ikastaroa antolatu eta aurrera eramatearen ondorioz sor daitekeen balizko arrisku edo onura ekonomikoa. Praktika Juridikoko Eskolak ikastaroa finantzatzen du izena emandakoen matrikuletatik eskuratutako dirusarreraren bitartez.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Lizarrako Santo Domingo eta San Jerónimo egoitzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Lizarrako Santo Domingo eta San Jerónimo egoitzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 25eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Lizarrako Santo Domingo zahar-etxei buruz (PES 251/09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Lizarrako Santo Domingo zahar-etxearen behin betiko kokalekua eta auzia konpontzeko modua aztertzen ari gara une honetan.

Aurrena, xehetasun-azterlan bat egin zen, ikusteko ea zer aukera zegoen egungo zahar-etxea berritzeko, zahar-etxea handituta eta behar bezala jarrita. Azterlan horrek erakutsi zuenez, ordea, proiektuak zailtasun tekniko eta arkitektonikoak zituen.

Hortaz, beste aukera bat lantzen hasi gara: zahar-etxea San Jerónimora eramatea.

Hartara, hitzordua jarri dugu hemendik gutxirako arduradunarekin, hori egitea bideragarria den aztertzen hasteko.

Iruñean, 2009ko azaroaren 3an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Nafarroako Mendekotasun Agentziak egoitza publikoei eta itunpekoiei aplikatzen dizkien tarifei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako Mendekotasun Agentziak egoitza publikoei eta itunpekoiei aplikatzen dizkien tarifei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 9ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako Mendekotasun Agentziak

egoitza publikoei eta itunpekoiei aplikatzen dizkien tarifei buruz (PES 278-09). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

2008ko azaroaren 27an eginiko bilkuran, Autonomiarako eta Mendekotasuna dutenei laguntzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluak erabaki bat hartu zuen onuradunaren ahalmen ekonomikoari eta hark Autonomiarako eta Mendekotasuna dutenei laguntzeko Sistemari izanen zuen parte-hartzearen gaineko irizpideei buruz. Aipatu erabakia 18ko abenduaren 17an argitaratu zen, eta bertan esaten denez, autonomia erkidegoek erabiltzaileek ordaintzen dituzten kuota egokitu beharko dituzte, egoitzako arretarako zentroetako postu itunduaren prezioen arabera.

Erabaki horri jarraikiz, Nafarroako Mendekotasun Agentziaren tarifak gaurkotu egin dira 2009an, zerbitzuen egiazko kostura hurbiltze aldera. Horri

dagokionez, kontuan hartu behar da 2001etik 2008ra zerbitzuen egiazko kostua % 56 inguru igo dela; aldiz, erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifak % 25 besterik ez dira igo.

Igoera, oro har, % 11,20koa da, eta mendekotasuna duten adineko pertsonen egoitza-postu itundu edo publiko batengatik kobratzen zaien gehieneko tarifa, horixe baita galderaren xedea, 1.395,20 eurokoa da.

Hala ere, kontuan hartu behar da igoerak ez diela berdin eragiten pertsona guztiei; izan ere, eragina desberdina da pertsonak dituzten baliabide ekonomikoen arabera.

Hala, erabiltzaile bakoitzak bere errenta pertsonalaren % 90 ordaintzen du gehienez ere. Gainera, beti errespetatzen da “aske erabilgarritzat” jotzen den zenbatekoa, hau da, erabiltzailearen oinarrizko gastuak estaltzeko beharrezkoa dena. Kopuru hori % 55,87 igo da 2009an.

Horretaz gain, badira erabiltzaileentzako gehieneko prezioak, gainditu ezin daitezkeenak.

Hala, egoitzen erabiltzaileen % 49ri, tarifa igo ez baino jaitsi egin zaie 2008an, errenta baxuak izateagatik. Erabiltzaileen % 1i ez dio eragiten, eta gainerako % 50aren tarifak modu desberdinean igoko dira, erabiltzailearen errentaren arabera.

Azkenik, esan behar da 2010ean, koordainketaren gaineko araudia onesten denean, onuradunak zerbitzuen kostuan izanen duen parte-hartzea ezarriko dela haren ahalmen ekonomikoaren gaineko portzentaje baten bidez. Portzentajea tarte batzuen artean kokatuko da eta pixkanaka aplikatuko da.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, euskara sustatzeagatik Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso duten Nafarroako entitateei eta elkarteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du euskara sustatzeagatik Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso duten Nafarroako entitateei eta elkarteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak idatziz erantzuteko galdera egin du euskara sustatzeagatik Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso duten Nafarroako entitateei eta elkar-

teei buruz (PES-00283). Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzarako protokolo orokorrak, laugarren klausulan, honakoa jasotzen du: “Lankidetzaren honetatik eratorzen diren ekintza jakinak finantzatu, antolatu eta egikaritzeko behar diren baldintza bereziak kasu bakoitzari dagokion hitzarmen berariazko batean ezarri beharko dira, eta bertan zehaztuko dira beti ere horiei begira aldeetako bakoitzak bere gain hartzen dituen betebeharrekoak.”

Gaur egun arte ez da bi administrazioen artean berariazko hitzarmenik egin zuk planteatzen duzu gaiari buruz.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betez.

Iruñean, 2009ko azaroan

Hezkuntza kontseilaria: Alberto Catalán Higuerras

Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskolari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du Iruñeko Hizkuntza Eskolari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du, jakiteko ea badagoen zerbait egiteko asmorik helduen hizkuntzen irakaskuntzari era integralean heltzeko Iruñeko Hizkuntza Eskolan eta ea aztertu al den zerrendak eta matrikulak kudeatzeko modua aldatzeko aukera, goizaldean izaten diren ilarak eta postu bat lortzeko ordutako itxaronaldi luzeak ekiditeko (PES-00252). Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak eskaintza handia egiten du hizkuntzen irakaskuntzaren arloan, eta nafar asko eta askori ematen die zerbitzu hori. Eskaintza hori urtero antolatzen da, ez bakarrik eskariari erantzuteko asmoz, ezpada hizkuntzen irakaskuntza sustatzeko eta motibatze asmoz ere, Gobernu honentzat lehentasuna duen helburu bat gauzatze aldera.

Nafarroako Administrazio Publikoen Institutuak ikaspostu ugari eskaintzen dizkie administrazio publikoetako langileei atzerriko hizkuntzak ikas ditzaten.

Hezkuntza Departamentuak ere baliabide asko baliatzen ditu hizkuntzetako prestakuntzarako, bai irakasleei –irakasleen prestakuntza planaren bitartez– bai herritarrei ere, Nafarroako hiru hizkuntza eskola ofizialen bitartez eta Hizkuntzen Autoikasuntzako Nafarroako Zentroaren bitartez:

– CNAIren bitartez urtero eskaintzen zaizkie irakasleei bertaratze partzialeko ingelesezko ikastaroak.

– Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak 1.500 heldu ingururi ematen die oinarrizko mailako eta maila ertaineko ingelesezko prestakuntza, eta maila horietako azterketak egiten dizkie. Kopu-

ru horri gehitu behar zaio bigarren hezkuntzako ia 5.000 ikaslek egiten dutela ingeleseko, frantseseko eta euskarako matrikula.

– Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak gure erki-degoaren beharrezan eta eskaeraren arabera ikaspostuak ziurtatzen ditu 5 hizkuntzatan (ingelese, frantsesa, euskara, alemana eta italiera); izan ere, hizkuntza guztietan gelditzen dira hutsik ikaspostuak, baita ingelesean ere (modulu berezietan soilik). Ingelesa da, ordea, ikastetxe-eskaintza handiena duena.

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialaren ikaspostuen eskaintza egitean, kontuan izaten da 5 hizkuntzen eta mailen nahiz ikastaroen arteko oreka, ziurtatze aldera hizkuntza guztietan eskaini ahalko direla maila guztiak.

Alde batetik, mailaz igo diren ikasle ofizial guztiei ziurtatu behar zaie ikaspostua, eta arrazoiak arrazoi diskriminazio positiboa zor zaien hizkuntzak indartu behar dira, esaterako alemana, bai eta zenbait hizkuntzatarako “xedetzat” hartzen diren mailak ere, esaterako euskarako, ingeleseko eta frantseseko B2 eta C1 mailak, beharrezkoak bai baitira lanbidean jarduteko, irakaskuntzan adibidez, oinarrizko prestakuntzako plataformak dituztelako; izan ere, Nafarroako ikasle ia guztiek ikasten dute ingelese ikastetxean.

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean zerrendak eta matrikulak kudeatzeko azken urteotan baliatu den sistemari esker, bukatu da ilaran luzarotan egon behar izatea eskola horretan ikaspostu bat lortuko bada. Besteak beste, ikastetxe gutxi ematen zuelako hizkuntzak ikasteko aukera.

Egungo egoera nabarmen aldatu dute unibertsitateetako baliabide zentroak hazi izanak, NAPIK funtzionarioei egiten dituen eskaintza handiak, CNAIk, hezkuntza-sistemak berak, Erasmus egoaldiek eta abar.

Teknologia berriek bide ematen dute on line aurreinskripzioaren bidez kudeatzeko ikaspostu-esakera berriak; hartara, ez dago eskolara horretarako etorri beharrik.

Iraileko azterketen emaitzek eta ikaspostu hutsak egoteak beharrezkoa egiten dute irailean aurreinskripzioa egiteko epe berezi bat abiatzea, hori ere on line.

Urtero gelditzen direnez ikaspostu hutsak hizkuntza eta maila guztietan, horiek eskaini egin

behar dira, deialdi orokor batean eskaini ere, aurreinskripziorik gabe, heldu ahalako hurrenkeran emateko iksapostu hutsak.

Aurreinskripziorik gabeko deialdi horrek ez du, gaur arte, eragozpen handirik ekarri. Egia da, halere, aurtan, hizkuntza jakin baterako eta egun jakin batean, behinolako anabasa ikusi ahal izan dela IHEOko atarian.

Heldu den ikasturterako aurreikusi da on line kudeatuko direla aurreinskripzio eta matrikula guztiak, halako moduan non ez den beharrezkoa izanen herritarrek eskolara joan behar izatea, hartara ekidinen baitira itxarroteak dakartzan arazoak.

Honekin batera, ondoko agirien fotokopiak doaz:

– Ekaineko, iraileko eta urriko lan-egutegia: mailen eta hizkuntzen araberrako aurreinskripzioak eta matrikulak eta azken ikaspostu hutsen deialdia.

– Urriko aurreinskripzioen kudeaketa, zozketa-ko zenbakitik abiatuta.

– Interneten bidezko matrikulak: 1.628

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betez.

Iruñean, 2009ko azaroan

Hezkuntza kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Zangozako zubi berriaren obrak hasteko eta bukatzeko aurreikusi diren datai buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Zangozako zubi berriaren obrak hasteko eta bukatzeko aurreikusi diren datai buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Zangozan zubi berria eraikitzeko asmoari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Zangozako zubia egiteko lanak hasteko eta amaitzeko datak 2009-2016 urteetarako Errepideen Plan Zuzendarian zehaztuko dira. Aipatu plana izapide administratiboen fasean dago.

2. Zubia eraikiko da Zangozako Udalak behin eta berriz eskatutako tokian. (Aipaturiko eskaeraren kopia erantsi dugu).

3. Zangozako zubi berriaren proiektua ez dago idatzita oraindik.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko azaroaren 12an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

(Oharra: Aipatu eranskian foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, ingurumen arloko arriskuei dagokienez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusi dituen ekintzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du ingurumen arloko arriskuei dagokienez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusi dituen ekintzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du ingurumen arloko arriskuei dagokienez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusi dituen ekintzei buruz (PES-290). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ez du jakin arto transgenikoaren landaketak biodibertsitaterako arriskuei buruzko ebiden-

tziarik dagoenik. Europar merkaturatzeko baimendu den produktu bakarra, Europar Batasuneko herrialde batzuetako nekazaritzan erabiltzen denari, MON 810 izenekoari, landatu aurretik, jomuga ez diren organismoen arriskuei buruzko ebaluazio bat egin zitzaien (baimendu den edo baimentzekoa den beste edozein GEOrekin gertatzen den bezala).

Merkaturatzeko baimen guztiek berekin dakarte merkaturatze ondoko jarraipenari buruzko plan bat. Hartara, izan ere, biodibertsitatearen gainean edo giza osasunarengan eraginik badute, baimena berrikusi egingen da.

Nolanahi ere, komeni da jakitea arriskuei, merkaturatzeko baimenei eta abarrei buruzko erabakiak gutxienez ere Europa mailakoak direla eta ez erregio mailakoak. Europako erabakiak badaude horri buruz.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Leringo Udalak 173 zuhaitz bota izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Gracia Iribarren Rivas andreak galdera egin du Leringo Udalak 173 zuhaitz bota izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du (PES 294) Leringo Udalak 173 zuhaitz bota izateari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Joan den uztailean, Leringo Udalak eskatuta, departamentu honetako zenbait langilek, udaleko beste langile batzuekin batera, bisita egin zuten NA-6111 errepidearekin muga egiten duen amildegia aldera, errepide horri eragiten zioten zuhaitzen egoera ikusteko. Ikusi ahal izan zenaren arabera, eremu hura, amildegia eta errepideranzko malda handikoa, zuhaitzez estalita zegoen: aleo pinuak, Arizonako altzifreak eta helduarora iritsitako zenbait hostozabal. Zuhaitz horietako gehienek galtzeko bidean egotearen zantzuak agertzen zituzten, eta zenbait ale makurtuta eta puntak

iharturik zeuden, bai errepidearen ertzean zeudenak bai herriko etxeen ondoan zeudenak ere. Udalarik jakinarazi zitzaion arriskutsuak zirela zuhaitz horiek, errepidera edo inguruetako etxetara eror baitzitezkeen, baso-sutea izanez gero.

Errepideari zor zaion tarteari eragiten dioten zuhaitzak direnez gero, halaber jakinarazi zitzaion Herri Lan Departamentuaren eskumenekoak izan daitezkeela, eta haiek kendu nahi izanez gero, udalak landaretzaren leheneratzeari ekin beharko ziola, balizko mozketaren ondoren.

Ondoren, jakin izan da zuhaitz-mozketa egin dela Herri Lan Departamentuaren ekimenez. Bestetik, Leringo Udalak departamentuaren dirulaguntza eskatu du 2009ko uztailean, oihangintza-lanetarako laguntzen deialdiaren barrenean, aipaturiko gunea leheneratzeko.

Departamentu honek ez du Sepronan aurkezturiko inolako salaketaren berririk.

Era berean, Departamentu honek ez du hasi inolako espedienterik, eta halako asmorik ere ez du, horretarako motiborik ez baitago, zeren eta errepideari zor zaion tartean segurtasun-arrazoiengatik eginiko zuhaitz-mozketa izan baita.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturria

Galdera, Espetxeetako Lan eta Prestazioen Erakunde Autonomoarekin Iruñeko espetxeko hezkuntzari buruz sinatutako lankidetzaren jarraipena egiteko batzorde mistoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Espetxeetako Lan eta Prestazioen Erakunde Autonomoarekin Iruñeko espetxeko hezkuntzari buruz sinatutako lankidetzaren jarraipena egiteko batzorde mistoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Espetxeetako Lan eta Prestazioen Erakunde Autonomoarekin Iruñeko espetxeko hezkuntzari buruz sinatutako lankidetzaren jarraipena egiteko batzorde mistoari buruz (PES-00293). Hona Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Orain arte, eta kontseilari naizen aldetik jaso ahal izan dudana informazioaren arabera, ez da abian jarri, abian jarri ez denez, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Espetxeetako Lan eta Prestazioen Erakunde Autonomoaren arteko lankidetzaren jarraipena egiteko batzorde mistorik. Batzordea abian jartzeko, hiru erakundek hartu behar dute ekimena: Espetxeetako Lan eta Prestazioen Erakunde Autonomoa, Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean duen Ordezkaritza eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Halere, une honetan koordinatuta ari dira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua eta Espetxeetako Administrazioa, Iruñeko Espetxeari dagokionez, Espetxearen eta Hezkuntza Departamentuaren arteko Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Teknikoaren bitartez, 2003an eratu baitzen koordinazio organo iraunkor gisa. Hezkuntza Departamentuaren eta Iruñeko Espetxearen ordezkariak osatzen dute batzordea.

Batzordeak hiruzpalau bilera arrunt egin ohi ditu urtero, hiru hilabete behin gutxi gorabehera. Batzordearen lehendakaritza txandaka hartu dute Hezkuntza Departamentuak eta Iruñeko Espetxean, uztailaren 9ko 203/1999 Errege Dekretuko 11. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoari jarraikiz, zeinaren bidez sartu baitziren maisu-maistren kidegoan espetxeetako oinarritzko hezkuntza orokorreko irakasleen kidegoko funtzionarioak eta ezarri baitziren espetxeetako hezkuntza unitateetako funtzionamenduari buruzko arauak.

Urte hauetan guztietan orobat ziurtatu da Iruñeko espetxean behar bezalako baldintzetan ematen zela hezkuntza-zerbitzua; alderdi praktikoari dagokionez esan daiteke, berriz, Hezkuntza Departamentuaren eta Iruñeko espetxearen kezka nagusia izan dela kartzela barruko eskolen funtzionamendu egokiena sustatzea eta erraztea. Horra bideratu da gure ahalegina. Halatan, Espetxearen eta Hezkuntza Departamentuaren arteko Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Teknikoa, koordinazio organo iraunkorra den aldetik, koordinazioa eta jarraipena egiteko tresna egokia izan da orain arteko sei ikasturteotan (zazpigarrena hasi da). Iruñeko espetxean ondoko hezkuntza-zerbitzua ematen da gaur egun:

Irakasleak

- 4 maisu lanaldi osoan
 - 2 orotariko irakasle
 - 1 gorputz hezkuntzako
 - 1 ingelesekoa
- 1 maisu lanaldi partzialean (lanaldiaren 3/4)
 - Euskara
- 4 orduko tutoretza astean Helduentzako Bigarren Hezkuntzan
 - 2 ordu komunikazio eta gizarte arloan
 - 2 ordu zientzia eta teknologia arloan

Maisuak José M^a Iribarren Helduen Oinarritzko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren menpe daude funtzionalki. Bigarren Hezkuntzako tutoretzak Félix Urabaien Helduen Irakaskuntzako Institutuaren ardura dira.

Hezkuntza jarduerak

(Parentesi artean ageri dira 2008/2009 ikasturteko ikasleen datuak)

- Hasierako irakaskuntzak (94)
- Atzerritarrentzako gaztelania (33)
- Helduentzako Bigarren Hezkuntza (13)
- Bide-hezkuntza (11)
- Ingelesa (61)

– Euskara (61)

– Jarduera fisikoak eta kirol jarduerak (51)

Hiru preso zeuden UHUN-Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalean matrikulatuta, eta bat, berriz, Hizkuntza Eskola Ofizialean.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betez.

Iruñean, 2009ko azaroan

Hezkuntza kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Reina Sofía museoak antolatutako “Encuentros del 72” izeneko erakusketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Reina Sofía museoak antolatutako “Encuentros del 72” izeneko erakusketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak eskatu duen “Encuentros del 72” izeneko erakusketa Nafarroara ekartzea eta, hala ez bada, eskatzeko asmorik baduen. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak 2008tik hartu-emanak izan ditu Reina Sofía museoko arduradunekin, erakusketa-proiektu horretan lankidetzan aritzeko, eta, aldi berean, Iruñeko Udalarekin ere lanean jardun du, baterako jarduerak koordinatzeko.

Hartu-eman horien emaitza izan da bi erakundeek “Encuentros del 72” erakusketan parte hartzea. Erakusketa 2009ko urriaren 27an inauguratu zen Reina Sofía Museoan, eta ekitaldian Nafarroako Gobernuak Kultura zuzendari nagusi Pedro Luis Lozano eta Iruñeko alkate Yolanda Barcina izan ziren, bai eta museo zuzendari Manuel Borja-Villel eta erakusketako komisario José Diaz Cuyas ere. Halaber, Iruñeko Udalarekin batera ere lan egin dugu katalogoa argitaratzeko. Katalogo hori, izan ere, prestatzeko fasean dago.

Halaber, bi erakundeok hartu-emanak izan ditugu lortzeko Nafarroako lehentasuna izan dezan erakusketaren joan-etorrietan. Horren ondorioz, erakusketa Iruñean ikusi ahal izanen da Madrilgo erakustaldia bukatzen denean. Une hauetan, aurrekontuak onesteko esperoan gaudela, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren artean maila teknikoko hartu-emanak izan ditugu, aztertzeko erakusketa Iruñean dauden tokietara nola egokitu.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko azaroaren 27an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Esako gaizkata-haztegiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Esako gaizkata-haztegiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.ri buruz (PES-00229). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

1. galderaren erantzuna

Galdera honi erantzun aurretik argitu behar da ezen pertsona horiek ez zutela Sodenaren izenean parte hartu bilera hartan, baizik eta Piscifactoría Sierra Nevada S.L.ren izenean.

Piscifactoría Sierra Nevada S.L. sozietateak bilerak egin zituen ekainaren 2009ko 11n eta 30ean, uztailaren 23an, abuztuaren 12an eta, azkena, urriaren 27an. Bileretara joan ziren Sodenako zuzendari nagusia (lehen bilerara) eta Sodenak Piscifactoría Sierra Nevada S.L. sozietateko Administrazio Kontseiluan dituen bi ordezkari. Esako Udalaren izenean alkatea izan zen horietako lautan. Bakarrik joan zen, salbu eta azkenera, zeinetan udal idazkariarekin eta zinegotzi batekin egon baitzen.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoko kideak ere egon ziren, Esako alkateak eskatuta.

Argi eta garbi gera bedi ezen, bilera horietan, pertsona horiek ez zirela aurkeztu Sodenako kide gisa, ezpada Piscifactoría Sierra Nevada S.L. sozietateko Administrazio Kontseiluko kide gisa.

2. galderaren erantzuna:

Enpresa pribatu batek, Piscifactoría Sierra Nevada S.L. kasu, eta udal korporazio batek izandako bileren edukia pribatutasunaren eremuan gelditu behar da. Horri dagokionez, gogora ekarri beharra dago Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 14. artikuluko 2. idatz-zatia eta Sozietate Anonimoen buruzko Legeko 127. artikulua.

Nolanahi ere, Foru Gobernuaren eta Parlamentuaren arteko harremanei darien lankidetzaspirituari jarraikiz, bai esan daiteke, oro har, Piscifactoría de Sierra Nevada enpresak Esako arrain-haztegiarako aurreikusitako proiektuaren zenbait alderdi aztertzea zela helburua, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Esako urtegiaren kudeaketa eragingarriarekin bat, beti saiatzen baikara koordinatzen Esako Udalak etorkizunean egin ditzakeen proiektuekin, alde guztiek lortze aldera ahalik eta emaitzarik onena.

Piscifactoría Sierra Nevada, S.L.ren asmoa da, industria-jarduera berri bat bultzatzeaz gain, Esa aldea turismoaren eta gizartearen ikuspuntutik biziberritzea, Riofrío (Granada) instalazioekin gertatu den moduan.

3. galderaren erantzuna:

Ez dagokio Nafarroako Gobernuari alkate batek sozietate anonimo bateko ordezkariarekin izandako bilera batean esandakoa errepikatzea.

4. galderaren erantzuna:

Berriro diogu ezen Esako Udalarekin izandako bilerak ez direla izan Sodena enpresa publikoaren izenean, baizik eta Piscifactoría Sierra Nevada merkataritzako sozietate pribatuarenean. Sodena enpresak ez du instalaziorik Esan.

5. galderaren erantzuna:

Urriaren 15eko datarekin emandako erantzuna ekarri behar dugu hona. Gaur arte, guk dakigula, ez da egin izapiderik.

6. galderaren erantzuna:

Zehaztu gabe dago zer prozedura baliatuko den sozietate publikoak eratu berri den korporazio publikoan sartzeko.

7. galderaren erantzuna:

Ingurumen eta Ur Zuzendaritza Nagusiak ez du Esako arrain-instalazioetan gaizkata merkataritzarako ekoiztearen berririk, ez baita halako jarduerarik izan. Zuzendaritza nagusi horrek soilik izan du gaizkata merkataritzaz bestelako helburuetarako maneiatu izanaren berri; alegia, hala hasierako baimenean nola egindako luzapenean agindutakoa bete da.

8. galderaren erantzuna:

Esako urtegiaren ez dago gaizkataren hazkuntzako merkataritza jarduerarik.

9. galderaren erantzuna:

Batere ez.

10. galderaren erantzuna:

Sodenak ez du onura ekonomikorik lortu Piscifactoría Sierra Nevada, S.L.n parte hartzeagatik.

11. galderaren erantzuna:

Piscifactoría Sierra Nevada, S.L.k ez du ez eskatu ez jaso ere Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik.

Piscifactoría Sierra Nevada, S.L. dirulaguntzak jaso zituen bere garaian, 2000ko ekitalditik 2005eko ekitaldira bitarte hain zuzen ere, orduan eskatu eta eman baitzen azken laguntza, ikerkuntza eta garapen proiektuengatik, Sodenak parte hartzen hasi aurretik betiere, eta eskuragarri daude jendaurreko argitalpenetan, baina azpimarratu beharra dago hiru erakundek emanak zirela batez ere: Estatuko Administrazio Zentraleko bi (C.D.T.I. eta Zientzia eta Teknologia Ministerioa) eta Europar Batasuneko bat (I.F.O.P.).

Laguntza horiek guztiak eman ziren, adierazi bezala, Sodenak sozietate horretan parte hartzen

hasi aurretik, eta sozietateak Riofrón (Granada) dituen instalazioetan garatutako jarduerari dagozkie.

12. galderaren erantzuna:

Galdera ez da koherentea; izan ere, Esako arrain-haztegia ez da merkataritza jarduerarik abiarazi gaizkata hazteko.

13. galderaren erantzuna:

Ez da jasota ageri Ondare Zerbitzuak txostenik egin izana Piscifactoría Sierra Nevada, S.L.ko akzioak edo partaidetzak erosi izanari buruz.

14. galderaren erantzuna:

Honekin batera doa Ingurumen eta Ur zuzendari nagusiaren 2009ko urriaren 2ko 1998/2009 ebazpena.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Zentro Pilotuen Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du Zentro Pilotuen Planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak galdera egin du Zentro Pilotuei buruzko Planari

buruz (PES-300/09). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

“Oinarrizko osasun laguntzan zainketa-prozesuaren antolamendua hobetzeko proiektua” deritzonaren pilotatze-fasea amaitu eta ebaluatu ondoren, Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzak lanean dihardu Oinarrizko Osasun Laguntzaren Kalitatea Hobetzeko Planean. Dokumentu hori, gaur egun, prestaketa-fasean dago.

Dokumentua ez da onetsiko amaitzen den arte.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko azaroaren 26an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, “Kutsadurari aurea hartzea eta zuzentzea” izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Gracia Iribarren Rivas andreak galdera egin du “Kutsadurari aurea hartzea eta zuzentzea” izeneko kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du “Kutsadurari aurea hartzea eta zuzentzea” izeneko kontusailaren edukiari eta xedeari buruz (PES-301). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

2009ko gastuen aurrekontuko “Kutsadurari aurea hartzea eta zuzentzea” izeneko 740001-74100-7709-456900 kontusailak helburu du enpresa pribatuentzako kapital transferentziak egitea.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko uztailaren 29ko 410/2008 Foru Aginduaren bitartez, industriaren jarduerak ingurumenen duen eragina prebenitu, zuzendu eta kontrolatzeko jarduketak egiteko inbertsioetarako diru-laguntzen 2008ko deialdia onetsi zen.

Deialdi horretan 300.000 euroko gastua aurreikusitako zen, 2009ko gastuen aurrekontuko “Kutsadurari aurea hartzea eta zuzentzea” izeneko 740001-74100-7709-456900 kontusailaren kargura, proiektatutako urte anitzeko proiektuen 2009. urterako inbertsioaren zatiari zegokion dirulaguntza hitzartu ahal izateko. Aurkeztutako eskariek –guztiak ere 2008koak– 1009ko ekitaldiko 28.913,01 gastu-hitzarmena suposatu dute.

Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak atzeman du Nafarroako industria sektoreak jarrera kontserbadorea zuela une hauetan diru-laguntza jaso beha-

rreko proiektuak egiteari begira, honako arrazoiengatik, hain zuzen:

- Ingurumenerako laguntzei buruzko Europako zuzentarauen arabera egungo arau-esparruari jarraituz eman daitezkeen diru-laguntzak bidezkoak dira soilik enpresek ingurumena dela-eta dauzkaten emaitzak hobetzeko, "lege indardunek exijitzen dutenaren gainetik"

- 2005-2007 aldian, industria-enpresa garrantzitsuenek ingurumen baimen integratuak –hain zuzen ere kutsaduraren kontrol integratuari buruzko 16/2002 Legeak exijitutakoak– prestatzen eta izapidetzen jardun zuten.

- Ingurumen baimen integraturako baimena lortzeko prozesua dela-eta, industrien beren industria prozesuak ebaluatu behar izan zituzten eta haie-

tan eskura dauden teknika egokien arabera aldaketak ezarri behar izan zituzten. Baimen berria dela-eta nahitaez aplikatu beharreko neurriak direnez, ez dira diruz lagundu daitezkeen inbertsioak. Diruz laguntzekoak ez diren inbertsioen behar horrek eragina izan du diruz laguntzeko proiektuak ez izatean.

- Egungo krisi ekonomikoaren egoerak eragina izan du, halaber, inbertsio proiektuak gerarazteko, adierazitako moduan.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko azaroaren 19an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, zebra muskuiluen izurriari aurre egiteko hitzarmenik sinatu ez izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Gracia Iribarren Rivas andreak galdera egin du zebra muskuiluen izurriari aurre egiteko hitzarmenik sinatu ez izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du 2009an zebra-muskuiluaren izurriari aurre egiteko inolako hitzarmenik sinatu ez izanari buruz (PES 302). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, zebra-muskuiluarekin zerikusia duten neurrietarako laguntza-eskaerarik ez dela izan ikusirik, telefono bidez harremanetan jarri zen izurri horren ondorioz kalteturik gerta zitezkeen ureztatzailen elkarte ugarirekin. Jasotako informazio-

aren arabera, elkarte horiek aurtengo ekitaldirako ez dute aurkeztu exekuzio zehatzen aurreikuspenik, eta uda bukaeran haietako zenbaitek abian zeuzkaten monitorizatze-lanak, iraunen dutenak nolabaiteko esku-hartzea egitera behartzen duen kutsatze-mailaren gorakadaren bat izan dela ikusi arte. Alde horretatik, elkarte horiek urtean zehar eginiko lagin-hartzeen emaitzak bat etorri dira departamentuak egindako analisien emaitzekin; hain zuzen ere, analisi horiek ez dute detektatu kalteturiko eremuaren handitzerik; eta, areago, Ebro ibaiaren arroko zenbait puntutan agerian gelditu da eragina, aurtan, iaz detektaturikoa baino murrizxeagoa izan dela.

Adierazi behar da ezen zebra-muskuiluaren aurkako neurrietan eginiko edozein inbertsio handia izan ohi dela oro har; horrenbestez, ureztatzailen elkarteek uko egiten diete horrelako inbertsioei, baldin eta ez badute detektatzen premia konpondu beharreko problema zehatzik.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

